

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILA

2088

EBAZPENA, 2019ko abenduaren 30ekoa, Elikagaien Kalitate eta Industriako zuzendariarena. Honen bidez, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuaren 2019ko irailaren 27ko aginduaren babespean 2019ko ekitaldian eskatu diren laguntzak esleitzen eta ukatzen dira. Agindu horren bidez, «Gastrobikain» kalitate gastronomikoa sustatzeko programaren minimis-araubidearen mendeko laguntzen oinarri arautzaileak ezartzen dira, eta laguntzen deialdia egiten da 2019rako.

Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuaren 2019ko irailaren 27ko Aginduaren babespean, hainbat laguntza eskatu dira; izan ere, agindu horren bidez, «Gastrobikain» kalitate gastronomikoa sustatzeko programaren minimis-araubidearen mendeko laguntzen oinarri arautzaileak ezartzen dira, eta laguntzen deialdia egiten da 2019rako. Bada, laguntza-eskaerak eta horiekin aurkeztutako dokumentazioa aztertu dira.

Deialdiari buruzko aginduaren 10.3. oinarria aplikatuz, Balorazio Batzorde bat eratu da, Elikagaien Kalitate eta Industriako zuzendariaren 2019ko azaroaren 29ko Ebazpenaren bidez izendatu dena. Bada, kontuan hartu dugu Balorazio Batzordean idatzitako ebazpen-proposamena.

Balorazio Batzordearen ebazpen-proposamena egiteko, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuaren 2019ko irailaren 27ko Aginduan ezartzen diren balorazio- eta hautaketa-irizpideak balioetsi direla ere kontuan hartu da.

Aurretik azaldutakoa aintzat hartuta, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Gastrobikain kalitate gastronomikoa sustatzeko programaren minimis-araubidearen mendeko laguntzak esleitzea ebazpenaren I. eranskinean zerrendatzen diren eskatzaileei (Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuaren 2019ko irailaren 27ko Aginduan jasotzen dira laguntzak). Eranskin horretan, diruz lagundu daitekeen gastuaren zenbatekoa eta zuzeneko laguntza gisa diruz lagundutako kopurua zehazten dira. Hala, guztizko zenbatekoa 484.701,27 eurokoa da, 300.000 euro 2019ari dagozkio, eta 2020rako 184.701,27 eurokoa izango da, eta Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontuen kontura finantzatuko da.

2019ko eta 2020ko aurrekontu-ekitaldietan egin beharko da gastua. Enpresak aurkezten dituen inbertsioen arabera eta Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuaren 2019ko irailaren 27ko Aginduan ezarritakoaren arabera ordainduko da dirulaguntza.

Inbertsioa ezarritako epean egiten ez bada, edo inbertsioa egin dela egiaztatzeko dokumentazioa epean aurkezten ez bada, dirulaguntza jasotzeko eskubidea galduko da, eta, hala badagokio, deialdiari buruzko aginduaren 20. oinarrian aurreikusten den itzulketa-prozedura hasiko da.

Bigarrena.– Gastrobikain kalitate gastronomikoa sustatzeko programaren minimis-araubidearen mendeko laguntzak ukatzea ebazpenaren II. eranskinean zerrendatzen diren eskatzaileei (Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuaren 2019ko irailaren 27ko Aginduan jasotzen dira laguntzak). Eranskin horretan, laguntzak ukatzeko arrazoiak zehazten dira.

2020ko maiatzaren 29a, ostirala

Hirugarrena.— Ebazpen honek ez du administrazio-bidea agortzen, eta, beraz, interesdunak gora jotzeko errekurtoa jarri ahalko du beronen aurka, Nekazaritza, Arrantza eta Elikagai Politikako sailburuordearen aurrean, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita hilabeteko epean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluetan xedatutakoarekin bat.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko abenduaren 30a.

Elikagaien Kalitate eta Industriako zuzendaria,
PELI MANTEROLA ARTETA.

2020ko maiatzaren 29a, ostirala

I. ERANSKINA

GASTROBIKAIN PROGRAMAN EMANDAKO DIRULAGUNTZAK

	Espediente zk.	Baltzuaeren izena	IFK/NAN	Diruz lagundu daitekeen inbertsioa (Euro)	Lortutako puntuazioa	2019ko laguntza (Euro)	2020ko laguntza (Euro)
1	001-GBK2019-CB	Boroalde sl	B48836118	269.056,07	65	49.656,00	30.344,00
2	004-GBK2019-CB	Traslapapa sl	B75195750	140.329,01	38	17.012,00	11.053,80
3	005-GBK2019-CB	Hirviendo Proyectos sl	B01508431	131.197,29	38	20.240,00	5.999,46
4	006-GBK2019-CB	El Rey del Rodaballo sl	B75103754	353.892,68	74	48.490,00	31.510,00
5	007-GBK2019-CB	Los Picudos sl	B95511937	222.000,00	47	27.559,00	16.841,00
6	008-GBK2019-CB	Gastro Ajoblanco sl	B75180695	111.657,19	50	13.537,00	8.794,44
7	009-GBK2019-CB	Salegi Jatetxea sl	B75037887	75.000,00	40	9.092,00	5.908,00
8	011-GBK2019-CB	Fleischmann's Cooking Goup sl	B75064543	265.196,85	50	32.149,00	20.890,37
9	012-GBK2019-CB	Sergio Humada sl	B75214999	460.227,56	48	48.490,00	31.510,00
10	014-GBK2019-CB	Lizatxa sl	B20639902	172.084,00	75	31.292,00	20.333,20
11	015-GBK2019-CB	Axpe Goikoa Erretegia sl	B95110383	20.000,00	34	2.483,00	1.517,00

2020ko maiatzaren 29a, ostirala

II. ERANSKINA

UKATUTAKO ESKABIDEAK

	Espediente zk.	Baltzuren izena	IFK/NAN	Ukatzeko arrazoia
1	002-GBK2019-CB	Maria Belen Fredes Empty	X9855603B	Ez da pertsona fisikoa (4.2 oinarria)
2	003-GBK2019-CB	Paulo Nicolas Airaudó Empty	Y1536003P	Ez da pertsona fisikoa (4.2 oinarria)
3	013-GBK2019-CB	Bask Eat sl	B95966032	Ez du gutxieneko inbertsioa gaitzen (6.2 oinarria)